**Kirol Zerbitzua**

Albisteak

# XI. argazki lehiaketa martxan da

2012/04/02






OINARRI ARAUAK

1. PARTE HARTZAILEAK
11/12 ikasturtean Mondragon Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak eta bertako langileak.

2. GAIA
Jarduera fisikoa aisialdian

3. MODALITATEAK
- Gehienez 3 argazki aurkeztu ditzake egile bakoitzak, kolore edota zuri-beltzean.
- Argazki onenaren saria lortzeko aurkeztutako argazki guztiek hartuko dute parte.
- Bilduma onenaren saia lortzeko beraien artean erlazioa duten 3 argazki aurkeztu beharko dira.

4. SARIAK
- 100€ argazki onenaren saria
- 200€ bilduma onenaren saria

5. LANAREN BETEBEHARRAK
Argazkiak jatorrizkoak eta esklusiboak izanbehar dute eta argazkiak globalki ukitzea onartuko bada ere, ezingo dira gehitu edo kendu bere jatorrizko konposizioa aldatzen duten elementuak.

6. LANAK AURKEZTEA
- Artxibo guztiak JPEG formatukoak izango dira eta ahalik eta kalitate handiena izan behar dute.
- Argazkiak USB batean edo *kirolak@mondragon.edu* helbide elektronikora bidalita aurkeztuko dira.

7. AURKEZTEKO EPEA
2012ko maiatzaren 18a, ostirala

8. EPAIMAHAIA
Kirol Zerbitzuak adituen batzorde bat osatuko du eta berau izango da ebazpena emateko eskubidea izango duen epaimahaia. Argazki guztiak Kirol Zerbitzuaren webgunean izango dira ikusgai.

9.EBAZPENA
Argazki eta bilduma irabazleak zeintzuk diren maiatzaren 23an argitaratuko dira Kirol Zerbitzuaren webgunean.

10. JABETZA
Aurkeztutako argazki guztien jabetza MU-k gordeko du. Baita mugarik gabe argitaratu edo erreproduzitzeko eskubidea ere.

Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen duen argazki lehiaketaren XI.edizioa da aurtengoa. Gaia "jarduera fisikoa aisialdian" izango da. Lehiaketa honek Unibertsitatetik kanpora bakoitzak bere aisialdi denboran praktikatzen dituen jarduera fisikoen argazkiak bilatzen ditu.

Lan guztiak *kirolak@mondragon.edu helbidera bidalita edo kirol zerbitzuan jasoko dira.* Lanak aurkezteko epea maiatzaren 18a arte egongo da zabalik eta aurkeztutako lan guztiak kirol zerbitzuaren webgunean egongo dira ikusgai, "ekintza osagarriak" atalean. Ebazpena maiatzaren 23an emango du kirol zerbitzuak osatutako adituen batzorde batek. Bi sari mota egongo dira. Bata, 100€koa argazki onenarentzako eta bigarrena 200€koa bilduma onenarentzako. Bilduma onenaren saria eskuratzeko beraien artean erlazioa duten hiru argazki aurkeztu beharko dira.

**Hemen dituzu aurkeztutako argazkiak ikusgai!**

Animatu zaitezte parte hartzera, ziur argazki eder pila dituzuela aurkezteko moduan!!